

# 2021eko urtarrila- iraileko emaitzak

2021eko azaroak 11



## Aurkibidea

1. Laburpen betearazlea
2. Kontratazioa
3. Eskarien zorroa
4. Emaidza-kontu bateratua
5. Aipatu beharreko beste batzuk
6. Eranskinak

# 1. Laburpen betearazlea

Maximo historikoak Hazkunde-ratioetan eta Errentagarritasuneko mailek gora egin dute, pandemia aurreko zifrak<sup>1</sup> gaindituta salmenta eta irabaziei dagokienez, eta Jasangarritasunarekin lotuta lorpenak izan dira

**Kontratazioa**

**2.964 M€**

▲ **3,5x**

*vs 2020ko 9H*

**Eskarien zorroa**

**9.738 M€**

▲ **% 11**

*vs 2020ko ab.*

**Salmentak**

**2.033 M€**

▲ **% 12**

*vs 2020ko 9H*

**EBITDA**

**175 M€**  
**% 8,6 marjina**

▲ **37M€**  
▲ **ehuneko 1,0 puntu**

*vs 2020ko 9H*

**Irabazi garbia**

**59 M€**

39      -20      59

2019ko<sup>3</sup> 9H      2020ko 9H      2021eko 9H

▲ **79 M€**

*vs 2020ko 9H*

**ESG**

- ❖ Sustainalytics

Low Risk<sup>3</sup>

- ❖ SBTirekiko atxikipena<sup>2</sup>
- ❖ Race to Zerorekiko atxikipena<sup>2</sup>

▲ **Kalifikazioa**  
▲ **Konpromisoa**

<sup>1</sup> 2019ko 9H.      <sup>2</sup> 2021eko urrian lortutako emaitzak      <sup>3</sup> Doitutako irabazi garbia.      3

# 1. Laburpen betearazlea

## > Kontratazioan eta jasangarritasun arloan lortutako mugarri nagusiak

### 2021eko uztaila

- ✓ CAFi esleitu diote **bateria bidez propulsatutako teknologia duen mundu osoko tren-kontratu handiena** (VRR Alemania)
- ✓ **Taldearen materialtasuneko matrizea eguneratu eta lehen ESG Equity Story argitaratu dute** ([www.caf.net](http://www.caf.net))
- ✓ Sozietatearen **webgunean jasangarritasunari buruzko atal espezifiko**a sortu dute ([www.caf.net](http://www.caf.net))
- ✓ Mugikortasuneko aplikazioarekin soluzio adierazgarri eta berritzaileak dituzten lehen mailako startupekin elkarlana bultzatzeko asmoz sortutako unitatea, **“CAF Startup Station”**, jarri dute abian.
- ✓ Mantentze-lanen jarduerarako, **“Silver” maila** (lor daitekeen maila altuena) eskuratu du **nazioarteko IRIS kalitate-estandarren arabera**.

### 2021eko iraila


- ✓ **Solarisen eCity webgunea** argitaratu da. Zero isurpeneko garraio publikoa du oinarri <https://ecity.solarisbus.com/en>

### 2021eko urria

- ✓ 2021eko emaitzen **kontura dibidendua** banatzeko erabakiaren berri eman dute:
  - ✓ Akzio bakoitzeko zenbateko gordina: 0,4 euro
  - ✓ Ordainketa-data: 2022ko urtarrilak 13
- ✓ **CAF Taldea SBTi ekimenera** (Science Based Targets Initiative) **eta Race to Zero**a atxiki da.
- ✓ **Sustainalytics** ratingeko agentziak **Low Risk kalifikazioa** (18,6 puntu) eman dio. Horri esker, CAF gure lehiakide zuzenen aurretik kokatu da.

### 2021eko azaroa

- ✓ CAF Taldeari **esleitu dizkiote Kairoko metroko 1. lineako 23 unitate birgaitzeko lanak**. Horien zenbatekoa **180M€** ingurukoa da eta proiektuak Espainiako finantzaketa izango du FIEM (Enpresa Nazioartekotzeko Funtsak) funtsen bidez.



## 2. Kontratazioa

> Tren arloan sinatutako kontratu berriak direla eta, Taldearen *book-to-bill* delakoa 1en gainera geratu da nabarmen

(milioi eurotan)

	2018	2019	2020		1HH-3HH 2021			
	1HH-4HH, GUZTIRA	1HH-4HH, GUZTIRA	1HH-4HH, GUZTIRA	Trenak	Autobusak	GUZTIRA	Trenak	Autobusak <sup>1</sup>
Kontratazioa	2.902	4.066	2.123	1.410	713	2.964	2.477	487
<i>book-to-bill</i>	1,4	1,6	0,8	0,7	1,0	1,5	1,6	1,0

### 2021eko 3HHko kontratu nagusiak

(Iragarritakoak, sinatutakoak eta zorroan jasotakoak)



#### Trenak

- Bateria bidez propulsatutako 60 tren baino gehiago + mantentze-lanetako zerbitzuak 30 urtez VRR-rentzat (Alemania)



#### Autobusak


- Hidrogeno bidezko autobusak Konin-erako (Polonia) eta Lyon-erako (Frantzia)
- Autobus elektrikoak Aarhus (Danimarka), Jaworzno (Polonia) eta Bolzano-rako (Italia), besteak beste
- Trolebusak Brno (Txekiar errepublika), Parma (Italia) eta Targu Jiu-rako (Errumania), besteak beste
- Autobus hibridoak Lodz-erako (Polonia)
- Autobus konbentzionalak Lodz eta Myslowice-rako (Polonia), besteak beste

<sup>1</sup> Aldi honi dagokion kontratazioaren xehetasuna *Eranskinean*.

# 3. Eskarien zorroa

> Beste errekor bat eskarien zorroan; trenen zorroa 9.000 M€ baino gehiagokoa da

## Eskarien zorroa (M€)



Kontratazioak eta zorroak ez dituzte jasotzen aldiaren itxiera ondoren gertatu diren esleipenak eta, horien artean, hauek dira azpimarratu beharrekoak:

- Kairoko metrorako 23 unitate birgaitzeko kontratua (180 M€, gutxi gorabehera).

<sup>1</sup> Ratioa 2021/09/30ean, Taldeak 2020an izandako salmenten gainean.

## 4. Eraitza-kontu bateratua


➤ Eraitzen kontuko kontu-sail guztiak hobetu egin dira eta salmenta eta irabaziei dagokienez, pandemia aurreko zifrak<sup>1</sup> gainditu

(milioi eurotan)	2021eko 9H	2020ko 9H	Ald. %
Negozio-zifraren zenbateko garbia	2.033	1.817	▲ % 12
EBITDA	175	138	▲ % 27
Ibilgetuaren amortizazioa eta hornidurak	(65)	(68)	▼ % 3
Ustiapenaren eraitza	110	71	▲ % 56
Finantza arloko eraitza	(24)	(64)	▼ % 63
Finantza-sarrerak	6	5	▲ % 34
Finantza-gastuak	(29)	(35)	▼ % 16
Trukeko edo kanbioko aldeak	0	(34)	▼ % 99
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	0	0	= % 0
Zergen aurreko eraitza	85	5	-
Irabazien gaineko zerga	(26)	(25)	▲ % 5
Zergen ondorengo eraitza garbia	59	(20)	-
Kanpoko bazkideen eraitza	1	1	-
Sozietate nagusiari egotzitako eraitza	57	(21)	-


# 4. Eamitza-kontu bateratua

> Salmentek igotzen jarraitzen dute zorroa sendoa delako


## Salmentak (M€)



> Salmenten errekorra urtarrila-iraila aldian, trenen jarduera handiari esker.



> Urtetik urterako igoera bi digitukoa izan da nahiz eta 2020ko 3. HHko tren arloko fabrikazio-jarduera handia izan zen 2020ko lehen seihilekoan lan egin ez ziren orduak berreskuratu zirelako.




> Salmentek gora jarraitzen dute, baina 3HHan entregetan asaldurak gertatu dira osagaien mundu mailako krisia dela eta. 2021eko 4HHan egoera bere onera etorriko dela aurrez ikusten dugu.




## 4. Eraitza-kontu bateratua

> EBITDA marjina maila normalizatueta<sup>1</sup> gerturaten ari da

### EBITDA (M€)



### EBITDA marjina (%)



> EBITDA maila normalizatuetatik gertu dago testuinguru konplexuan:

- Osagaien mundu mailako krisia
- Ingurune inflazionista
- Covid-19

Arretagunea hornikuntza-katean etorkizunean egon daitezkeen inpaktu potentzialak arintzeko.

<sup>1</sup> Pandemia aurreko mailak (2019ko ekitaldia) normalizatuetat hartuta.

<sup>2</sup> Doitutako EBITDA.

# 5. Aipatu beharreko beste batzuk




2021/10/06

**KLIMA ALDAKETAREN KONTRAKO CAF TALDAREN KONPROMEZUA**

CAF Taldeak SBti (Science Based Targets Initiative) eta Race to Zero ekimenekin bat egin du karbono-neutraltasunaren estrategiaren baitan.

Jarduketa horrek klima-aldaketaren kontrako eta Pariseko Akordioaren lerrotatze-ekimenarekin egiten du bat. Azken batean, konpainiak klima-aldaketaren erronkari begira duen konpromisoa sendotzen da.

**Science Based Targets (SBT)** edo zientzian oinarritutako helburuek igorpenak murrizteko helburuak biltzen dituzte ahalik eta zorrotasun zientifiko handienarekin; izan ere, zientzia klimatikoarekin daude lerrotatuta, eta bermatzen dute ekintza klimatikoak behar bezala neurtzen direla eta modu egiaztagarrian jakinaraziko direla. Industria aurreko tenperaturekin alderatuta, konpainiek berotze globala 2°C-ren (edo 1,5°C) azpitik mugatzea da helburu orokorra, 2015ean izandako Parisko Gailurrean 195 herrialdetako gobernuak hartu zuen konpromisoaren arabera.

**Race to Zero** Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Hitzarmen Markoan (UNFCCC) kokatutako munduko kanpaina da, High Level Champions eta COPeKo presidentetza buruan izanik, eta enpresak, inbertsiogileak, hiriak, unibertsitateak eta ekonomiako beste eragile batzuk biltzen dituzten ekimenen eta eragile inplikatuak koalizioak osatuta. COP26 baino lehen aldaketa ekonomia deskarbonizaturantz bideratzea da helburua.






Low Risk


**KLIMA ALDAKETAREN KONTRAKO CAF TALDAREN KONPROMEZUA**

CAF Taldeak SBti (Science Based Targets Initiative) eta Race to Zero ekimenekin bat egin du karbono-neutraltasunaren estrategiaren baitan.

Jarduketa horrek klima-aldaketaren kontrako eta Pariseko Akordioaren lerrotatze-ekimenarekin egiten du bat. Azken batean, konpainiak klima-aldaketaren erronkari begira duen konpromisoa sendotzen da.

**Science Based Targets (SBT)** edo zientzian oinarritutako helburuek igorpenak murrizteko helburuak biltzen dituzte ahalik eta zorrotasun zientifiko handienarekin; izan ere, zientzia klimatikoarekin daude lerrotatuta, eta bermatzen dute ekintza klimatikoak behar bezala neurtzen direla eta modu egiaztagarrian jakinaraziko direla. Industria aurreko tenperaturekin alderatuta, konpainiek berotze globala 2°C-ren (edo 1,5°C) azpitik mugatzea da helburu orokorra, 2015ean izandako Parisko Gailurrean 195 herrialdetako gobernuak hartu zuen konpromisoaren arabera.

**Race to Zero** Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Hitzarmen Markoan (UNFCCC) kokatutako munduko kanpaina da, High Level Champions eta COPeKo presidentetza buruan izanik, eta enpresak, inbertsiogileak, hiriak, unibertsitateak eta ekonomiako beste eragile batzuk biltzen dituzten ekimenen eta eragile inplikatuak koalizioak osatuta. COP26 baino lehen aldaketa ekonomia deskarbonizaturantz bideratzea da helburua.



**CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.**  
**BESTELAKO INFORMAZIO GARRANTZITSUEI BURUZKO KOMUNIKAZIOAK**

Sozietateko Administrazio Kontseiluak 2021eko urriaren 6an adostutako akordioaren arabera, 2021eko emaitzen kontura dibidendua banatuko da ezaugarri hauekin:

- Akzio bakoitzeko zenbateko gordina: 0,4 euro.
- Dibidendua jasotzeko eskubidea duten CAFeko akzioak negoziatzeko azken eguna ("last trading date"): 2022ko urtarrilak 10.
- CAFeko akzioak dibidendua jasotzeko eskubiderik gabe negoziatzen hasten diren eguna ("ex date"): 2022ko urtarrilak 11.
- Erregistro-data ("record date"): 2022ko urtarrilak 12.
- Ordainketa-data: 2022ko urtarrilak 13.

Dibidenduaren zenbatekoa, aplikagarriak diren atxikipenak kontuan hartuta, erakunde gordailuzaintzat indarrean dauden xedapenen arabera ordainduko da. Horretarako, Sociedad de Gestión de los Sistemas de Registro, Compensación y Liquidación de Valores SA (Iberclear) enpresak erakundeen esku jartzen dituen baliabideak erabiliko dira.

Horretarako, Kutxabank S.A. erakunde agenta ordaintzailea izendatzen da.

Beasainen, 2021eko urriak 6

## 6. Eranskinak

a) Kontratazioaren xehetasunak

b) Eraitza-kontu bateratuaren xehetasunak

c) Errendimenduko Neurri Alternatiboak



# a | Kontratazioaren xehetasunak

2021eko urtarrila-iraila aldiko eskarien zorroan jasotako eta iragarritako kontratuak

Data	Proiektua	Herraldea	Deskribapena	Bezeroa	Mota	Osagarriak	Negozioa			Zenbatekoa (M €)				
							Tren-ibilgailuak		Gainerako negozioak					
							# unit.	Plataforma	Negozioa	Irismena	Ezaugarriak			
1HH	COTRAL	Italia	Autobusetarako homidura	Berria ez	Oinariko kontratua	Ez			✓	Autobusa	Hiriarteko autobusen homidura	80	-	
1HH	Brasov eta Târgu Jiu	Errumania	Autobusetarako homidura	Berria	Oinariko kontratua	Ez			✓	Autobusa	Trolebusetarako homidura	36	~25	
1HH	ÖBB	Austria	Autobusetarako homidura	Berria ez	Oinariko kontratua	Bai			✓	Autobusa	Hidrogeno eta diesel bidezko hiri-autobusen homidura	-	-	
1HH	Arriva Netherlands	Herbehereak	Autobusetarako homidura	Berria	Oinariko kontratua	Ez			✓	Autobusa	Hidrogenozko hiribusetarako homidura	10	-	
1HH	Iasi, Sibiu, Sighetu Marmatiei, Suceava, Târgu Mures, Pitesti	Errumania	Autobusetarako homidura	Berria	Oinariko kontratua	Ez			✓	Autobusa	Hiriko autobus elektrikoaren eta birkarga-azpiegituraren homidura	123	~65	
1HH	RER B	Frantzia	Aldiriko trenen homidura	Berria ez	Oinariko kontratua	Bai	✓	146	-				-	
2HH	AB Transitio	Suedia	Eskualdeko trenen homidura	Berria	Oinariko kontratua	Bai	✓	28	Civity				>250	
2HH	Lisboa	Portugal	Tranbien homidura	Berria ez	Oinariko kontratua	Ez	✓	15	Urbos				>43	
2HH	Madril	Espainia	Autobusetarako homidura	Berria	Oinariko kontratua	Ez			✓	Autobusa	GNK bidezko hiri-autobusen homidura	250	~75	
2HH	SJ AB	Suedia	Tren-floten mantentzea eta gaueko kotxeak birgaitzea	Berria ez	Oinariko kontratua	Ez			✓	Zerbitzuak	Eskualdeko unitateak mantentzea eta birgaitzea	12 urte	>100	
2HH	De Lijn	Belgika	Tranbien homidura	Berria ez	Luzapena	Bai	✓	18	Urbos					
2HH	Sydney	Australia	Tranbien homidura	Berria ez	Luzapena	Ez	✓	4	Urbos				~100	
2HH	JV Salini Kolin	Turkia	Seinaleztapena	Berria ez	Oinariko kontratua	Ez			✓	Seinaleztapena	Katigamendu elektronikoaren ekipamendua, CTC eta ERTMS seinaleztapen-sistemak			
2HH	Ruhrbahn	Alemania	LRVen homidura	Berria	Oinariko kontratua	Ez	✓	51	-				~200	
2HH	Friburgo	Alemania	Tranbien homidura	Berria ez	Luzapena	Ez	✓	8	Urbos					
3HH	VRR	Alemania	Bateria bidez propulsiatutako trenak	Berria	Oinariko kontratua	Ez	✓	> 60	Civity	✓	Zerbitzuak	Bateria bidez propulsiatutako trenen mantentzea	30 urte	-

## b | Emaidza-kontu bateratuaren xehetasunak

(milioi eurotan)	2021eko 9H	2020ko 9H	Ald. %
Negoio-zifraren zenbateko garbia	2.033	1.817	▲ % 12
EBITDA	175	138	▲ % 27
Ibilgetuaren amortizazioa eta hornidurak	(65)	(68)	▼ % 3
Ustiapenaren emaitza	110	71	▲ % 56
Finantza arloko emaitza	(24)	(64)	▼ % 63
Finantza-sarrerak	6	5	▲ % 34
Finantza-gastuak	(29)	(35)	▼ % 16
Trukeko edo kanbioko aldeak	0	(34)	▼ % 99
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	0	0	= % 0
Zergen aurreko emaitza	85	5	-
Irabazien gaineko zerga	(26)	(25)	▲ % 5
Zergen ondorengo emaitza garbia	59	(20)	-
Kanpoko bazkideen emaitza	1	1	-
Sozietate nagusiari egotzitako emaitza	57	(21)	-

**Negoio-zifraren zenbateko garbian** gertatu den % 12ko urtetik urterako igoera, batez ere, pandemiaren fase zorrotzenaren ondoren gertatu den jardueraren susperraldiak ahalbidetu du. Trenen segmentuaren salmentek izan duten igoera % 14 eta % 4koa izan da autobusen segmentuan.

Honako hauek izan dira 2021ean abian egon diren proiektu nagusiak: Holandako NSrentzako Civity unitateak, Erresuma Batuko Wales & Borders-entzako Civity eskualdeko unitateak, SNCF-entzako Intercity unitateak eta Manilarako tranbia-unitateak.

2021eko irailaren 30ean, **EBITDA** 175 milioi eurokoa izan da (salmentekin alderatuta, % 8,6koa); hau da, aurreko ekitaldiko aldi berarekin alderatuta, igoera % 27koa izan da batez ere lehen aipatu dugun jardueraren gorakadaren eta COVID-19aren eragin txikiagoaren ondorioz. Salmentekiko EBITDAren ehunekoak ehuneko 1 puntu handitu da 2020ko aldi berarekin alderatuta.

## b | Emaidza-kontu bateratuaren xehetasunak

(jarraipena)

(milioi eurotan)	2021eko 9H	2020ko 9H	Ald. %
Negoio-zifraren zenbateko garbia	2.033	1.817	▲ % 12
EBITDA	175	138	▲ % 27
Ibilgetuaren amortizazioa eta hornidurak	(65)	(68)	▼ % 3
Ustiapenaren emaitza	110	71	▲ % 56
Finantza arloko emaitza	(24)	(64)	▼ % 63
Finantza-sarrerak	6	5	▲ % 34
Finantza-gastuak	(29)	(35)	▼ % 16
Trukeko edo kanbioko aldeak	0	(34)	▼ % 99
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	0	0	= % 0
Zergen aurreko emaitza	85	5	-
Irabazien gaineko zerga	(26)	(25)	▲ % 5
Zergen ondorengo emaitza garbia	59	(20)	-
Kanpoko bazkideen emaitza	1	1	-
Sozietate nagusiari egotzitako emaitza	57	(21)	-

**Finantza Emaidza** garbia -24 milioi eurokoa da; hau da, 2020ko ekitaldiko aldi berean izandako finantza-emaizta garbiarekin alderatuta, 40 milioi eurotan hobetu da batez ere honako hauei esker: truke-aldeetan egon diren alde negatibo handiak (-33,6 milioi euro) eta interes-tasetan gertatutako murrizketek eragindako finantza-kostu txikiagoak eta atzerriko dibisan egindako esposizio txikiagoa.

**Zergen Aurreko Emaidza**, 2021eko irailaren 30ean, 85 milioi eurokoa da. Aipatutako jardueraren igoerak izandako inpaktua eta 2020an sortutako truke-alde negatiboen eragina izan dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta gertatu den aldakuntza positiboa ahalbidetu duten bi faktore nagusiak.

Amaitzeko, **Zergen Ondorengo Emaidza Garbia**, 2021eko irailaren 30ean, 59 milioi eurokoa izan da.

Oro har onartutako kontularitzako araudiaren (NIIF) arabera prestatutako finantza-informazioaz gain, CAF Taldeak negozioaren kudeaketan modu errepikakorrean eta kontsistentean erabiltzen ditu Errendimenduko Neurri Alternatibo batzuk (“Alternative Performance Measures”, “APMs” ingelesez) bere jardueraren bilakaera azaltzeko lagungarriak direla uste duelako. Neurri horiek emaitzarekin, balantzearekin eta kutxaren fluxuarekin lotutako kontzeptuak jasotzen dituzte.

Dokumentu honetan erabili ditugun APM guztien banakapena eta haien definizioa **2021eko Lehen Seihilekoko Txostenaren baitako Kudeaketa Txosten Bateratuan** dago jasota. Dokumentua sozietatearen webgunean ([www.caf.net](http://www.caf.net)) dago irakurgai, 10. atalean - Errendimenduko Neurri Alternatiboak.



Dokumentu honek informazio-helburua du soilik.

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitopenen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko agerpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduko berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontrolatik kanpo daude eta gerta daiteke emaitzak errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsionarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritzia dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta aldeztatik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendaurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eksklusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAF, haren filialak edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek aldeztatik idatzizko baimena eman gabe.



# *Your Way* TO FUTURE MOBILITY

---

ONDO PRESTATUTA ETA BEGIAK ERNE... HORIXE DA  
MUNDU MAILAKO GARRAIOARI BEGIRATZEN DIOGU  
MODUA.

HORRELA DISEINATZEN, GARATZEN, FABRIKATZEN,  
INSTALATZEN ETA TXERTATZEN DITUGU  
ELKARLOTUTAKO MUGIKORTASUN SISTEMA BAT  
OSATZEN DUTEN PIEZA GUZTIAK.

ZURE MODURA EGITEN DUGU, ZURE BEHAR ETA  
LEHENTASUNETARA EGOKITZEN GARA, MODU  
IRAUNKORREAN, SEGURUAN ETA EROSOAN  
ETORKIZUNEKO HIRI ETA PERTSONENTZAT MUNDU  
OSOAN.

---